

## ONARTUTAKOENTZAKO ARGIBIDEA HIRI KANPALDIA BURLATA



**Kaixo lagunak, ziur gure zain zeundela. Kanpaldia gero eta hurbilago dago eta, jakina, zerbait jakin behar duzu joan baino lehen.**

Zuk aukeratu duzun kanpaldia **Burlatan** egingen da apirilaren 2tik 5era. Era askotako gauzak egingen dituzu eta, guztietan ere, primeran pasatuko duzu: sormen jarduerak, adierazpen jarduerak, jolasak, tailerrak. Lagun berriak ezagutuko dituzu, gainera, eta, haiekin batera, bizipen zoragarriak biziko dituzu.

**Non: Burlatako Kultur Etxean:** Jarduera Burlatako Kultur Etxean egingen da.

### **Sarrera eta irteera orduak**

Sarrera ordua 8:00 eta 9:00 artean izanen da, eta irteera, berriz, 14:00 eta 14:30 artean. Kanpaldia behar bezala antolatzeko, iritsi puntu-puntu mesedez. Haurrak biltzeko orduan, monitoreei jakinarazi beharko zaie, eta inork ere ezin izanen du haurrik eraman, aurrez deus esan gabe. **Irteera-orria sinatu beharko da.**

### **Bide segurua**

Burlatako Udaletik haurren autonomia garapenaren aldeko apustua egiten dugu, familiei animatuz, posiblea den neurrian, etxetik-kultur etxerako eta kultur etxetik-etxerako bidea bakarrik egiten utz diezaieten. Hau posiblea izateko beharrezkoa da gurasoek baimena sinatzea etxerako bidea EZ baitago hiri-kanpaldien barruan.

### **Sendagaiak**

Inolako sendagairik hartzen baduzue edo inolako osasun-tratamendupean bazaudete, eraman idatzita, eta, behin Kultur Etxera iritsitakoan, eman monitoreari, hartaz arduratuko baita.

### **Aseguru Medikoa:**

Fitxa hau aurkezterakoan, **Gizarte Segurantzaren** kartilaren fotokopia bat ere aurkeztu beharko duzu. Zure familiak eta zuk beste aseguru bat baldin baduzue, behar diren agiriak aurkeztu beharko dituzue, behar izatekotan laguntza egokia jaso dezazuen.

### **Arropa**

Hurrek arropa eroso ekarri beharko dute, bai eta kamiseta zahar bat ere, tailer jakin batzuk egiteko, zikintzen ahal baita. Kamisetan haurren izena jarriko da.

### **Hamaiketakoa**

Haurrak hamaiketakoa ekarri beharko dute (ogitarteko bat?), aproposa baderitzozue ur botila ere.

**Dirua:** Gure gomendioa da dirurik ez eramatea, ez baitago zertan gastatu.

## **Mugikorrak**

Kanpaldia gozamenerako eta beste hurrekin, begiraleekin eta inguruarekin harremantzeko gunea da, beraz, EZin izango da mugikorrik edo antzeko aparatuek eraman, ez eta erabili ere. Mugikorrak ekintzetan erabiliak izango balira, haiek bildu egingo genituzke eta egunaren bukaeran eman. Haur edo gaztetxoren batek mugikorra behin eta berriz erabiltzen badu, beste ekintza batzuk baloratuko dira.

### **Taldea sortzea:**

Taldeak sortzeko, gutxienezko parte-hartzaile kopuru bat beharko da

### **E-mailez edo udalekuaren lehen egunean aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Honako dokumentazio hau helbide elektronikoa honetara, [oac6@burlada.es](mailto:oac6@burlada.es), bidaltzea gomendatzen dizugu:

1. Osasun-txartela
2. Bete beharreko informazioa izeneko dokumentua (postan erantsita daukazu).

Ezin baduzu e-mailez egin, kanpamenduko lehen egunean ekar dezakezu.